

## Gizarte Ekimeneko ikastetxeak

**Gaur ELA, STEILAS, CCOO eta LAB sindikatuok LHKko bileran gizarte ekimeneko ikastetxeetako gatazka bideratzeko *ad hoc* proposatu dugun elkarrizketa prozedura onartu dute patronalek eta Hezkuntza sailak**

**Patronalak eta Hezkuntza Sailak dagokien arduraz jokatzeko badute, eta langileen eskaerei erantzun egoki eta planteamenduak mahai gainean jartzen badituzte adostasunak erdiesteak posible izango da; bestela grebekin jarraitu beste biderik ez digute utziko**

Gaur LHKan izan dugun bilera ez da bitartekaritza prozedura bat abian jartzerik onartu. Pasa den astean aurreratu genuen bezala, ELA, STEILAS, CCOO eta LAB sindikatuok gatazka konkretu honek dituen berezitasunak kontuan izanik, eta PRECOko akordioak beroni irtenbide erreal bat emateko prozedura egokirik jasotzen ez duen heinean, elkarrizketa prozedura propio baterako proposamena eraman dugu gaur bilerara, eta funtsean onartua izan da, bai patronal, bai hezkuntza sailaren aldetik.

Gatazka konkretu hau bideratzeko adostutako elkarrizketa prozedura propio honetan:

- Gatazkari irtenbide egokia emateko ardura eta aukera duten alderdi guztien parte hartzea bermatzen da, hala nola, sektoreko patronal eta sindikatuena zein Hezkuntza sailarena.
- Adostasunak bideratzeko asmoz, ekarpenak egiteko aukera izango duen LHKko teknikari batek hartuko du parte "bideratzaile" moduan (bideratzaile moduan hartuko du parte, prozesu guztian zehar ekarpenak egiteko aukera izango duelarik, baina bitartekari batek ez bezala, ez du alderdiek onartu edo ezeztatu behar duten idatzizko proposamen itxi bat aurkeztuko).
- Elkarrizketa prozedurak aurrera egiteko greba dinamika bertan behera uztea ez da baldintza izango.
- Jada deituta dagoen greba hasi aurretiazko bilera egutegi bat ezarriko da, aztertuko diren gaiak aldeztu aurretik ezarriko dira. Bilera LHKko egoitzan izango dira, lehenengoan biharko bertan. Sindikatuok, greba hasi aurretik adostasunak bultzatzeko helburuarekin, greba aurretiazko data zehatzak eta data bakoitzean aztertu beharreko gaiak itxi nahi izan ditugun arren, patronalek biharko utzi nahi izan dute.

Behin prozedura ezarrita, Patronalei eta Hezkuntza sailari dagokie mahai gainean jartzea adostasunetara eraman gaitzaketen eduki eta planteamenduak. Dagokien arduraz jokatzeko badute, eta langileen eskaerei erantzun egoki eta planteamenduak lantzeko eta bultzatzeko prest badaude, adostasunak erdiesteak eta gatazka bideratzea posible izango da; bestela, beste behin ere grebekin jarraitu beste biderik ez digute utziko.

Euskal Herria, 2019ko urriaren 28a

